

## Gazte Txokoak arrakastaz bete ditu lehenengo bost hilabeteak

■ Gazte Txokoa eraman duen taldeak balorazio 'oso positiboa' egin du ■ Azken bi-hiru hilabetean ume gutxiago joan da eta horrek heziketa lana erraztu egin du ■ Ekainean bukatu da eta udazkenean segiko du.



Hernaniko umeak Gazte Txokoan.

UDALETXEKO Hezkuntza sailak otsailaren leian jarri zuen martxan Gazte Txokoa, ekaina bitartean. Helburua zen 12-17 urteko gazteei beren denbora librean pasa eta gozatzeko aukerak eskaintzea. Antolaketa osoa *Urtxintxa* aisialdi taldeak eraman du eta egina du bost hilabete horien balorazioa.

### "HELBURUAK BETE"

Xehetasunetan sartuta, lan taldeak hiru helburu planteatu zituen lehen ikasturte honetarako: 1) Gazte lokala sendotzea: herrian zabaldu, zerbitzuak martxan jarri, hilabeteroko egitarauak osatu... 2) Gazte taldeak ezagutu eta lantzea. Eta 3) gazteekin herrian sarean lan egiten hastea: aisialdiko eskaintza egiteko, prebentzio mailan... Bost hilabetero lanaren ondoren, lan taldeak helburu horiek betetzat jo ditu.

### HIRU ZIKLO

*Urtxintxa*ko lan taldeak *Kronikari* bialdu dion memorian dionenez, Gazte Txokoak hiru ziklo izan ditu. Otsaila eta martxoa oso jendetsuak izan dira. Egunean, 54-52 ume etortzen ziren, batzuek beste eta 100 ume baino gehiagoko egu-

nak ere izan ziren hasiera hartan. Harrera on horrek, ordea, ez du dena mesederako: hezitzaileen lana asko zailtzeaz gain, jendetza hori ez da egokiena lokalaren neurrietarako.

Apirila eta maiatz erdialdera bitartean ume gutxiago etorri zen (40-35 eguneko). Hezitzaileek baldintza hobekoan lan egitea ekarri zuen horrek: umeekin tratu gehiago, harreman estuagoa, umeek ere elkarrekin hobeto moldatzea...

Azken hilabete eta erdian, ordea, ume kopurua asko jeitsi da. Lan taldeak ez daki seguru zergatik, baina, arrazoi batzuk aipatzen ditu: eguna luzatu eta eguraldi onarekin umeek beste plan batzuk egitea, Gazte Txokoaz nekatuta edo aspertuta

egotea, azterketak... Ume gutxiago egoteak hezitzaile lanean gehiago zentratzeko aukera eman dio lan taldeari, baina, zenbait ekintza jende faltaz ezin egin izan da.

### DATUAK

Datuak adierazgarriak dira ume kopurua nola aldatu den ikusteko. Otsailan, 1.574 ume ibili ziren Gazte Txokoan; martxoan 1.413; apirilean, 752; maiatzean 755 eta ekainean 272. Ikastetxeka hartuta, berriz, Gazte Txokoa ibilitako umeen % 34 Uru-mea ikastolakoak dira, % 20 Elizatxokoak, % 17 Inmaculadakoak % 13.5 Langilekoak eta % 10 herriatik kanpoko zentroetakoak.

### BESTE TALDEEKIN

Gazte Txokoa herriko beste taldeekin batera antolatu ditu ekintzak. Aisialdi eta integrazio sailean 14 taldeekin egin edo antolatu du zerbaite: (*Sustrai*a elkarte, prebentzio zerbitzua, *Akelarre* taldea, IMIC, Arraun elkarte, Dobera-Kilkerra, Molotoff, Aek, OMIC...).

Orokorrean, puntu hauek azpimarratu ditu lan taldeak: gazte asko ibili izana, adin tarte osoarekin lan egina, behar berezia zuten gazteengana ere iritsi izana, giroa gero eta hobea izatea komunikazioa eta konfiantzari eskerrak eta gazte mota batzuegana ailegatzeko lokalez kanpo beste ekintzak antolatu izana. □

### UDARAKO ZINEA

## '102 Dálmatas' gaur

■ 22:30etan plazan ■ Bihar 'Límite vertical'.

### TXANTXANGORRI

## Ehizeko dokumentazioa jasotzeko pronto

■ Jasotzeko, 10:30etatik 12:30-etara eta 19:00etatik 20:30etara.



Hernaniko ehiztari bat

TXANTXANGORRI elkarteak pronto dauka bazkideen ehizeko lizentziak eta bakoitzak berea jasotzera etortzeko eskatu die. Aurten 255 lizentzia egin ditu. Ehizerako beda abuztuaren erdialdera zabalduko da, Galeper, tortola eta biriarroentzat Txantxangorriko Kronikari esan dionez. Gainontzekoentzat, beranduago.

### ANTZERKI FERIA

## sei obra eta hiru estreno, gaur

■ Donostiako Antzerki FERIA sartu da azken txanpan. 12:00-etan, *Pan con pan*, Lugaritzen (estreno). 17:00etan, *Pepe el Romano*, Egian. 20:00etan, *Slastic*, San Telmon (estreno). 23:00etan bi obra: *El por qué de las cosas*, Antzoki Zaharrean eta *Prometeu* Zurriolan 00:30etan, *Dinomaquia*, Okendo plazan (estreno).

## MAVIA APAINDEGIA

Zure estetika-zentroa Hernanin

- ⇒ DEPILAZIOA: - Hotza - Beroa
- ⇒ DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- ⇒ MANIKURA
- ⇒ AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- ⇒ SOLARIUMA (Eskaintza berezia: 10 + 2)
- ⇒ GORPUTZ TRATAMENDUAK: Presoterapia

ZURE ESANERA GAUZKAZU EGUN OSOAN!!  
ANIMA ZAITEZ ETA BISITA GAITZAZU!!

Kardaberaz 60 - Tel: 943 55 27 49 - 20120 HERNANI

## SANSONATEGI

HERNANI GIPUZKOA



TFNOA - FAXA: 943 553 260

JATETXEA  
SAGARDOTEGIA

## Hernaniarrak bigarren Portugalen Euskal selekzioarekin

■ Yoli Pastor eta Onintza Esnal jokalaria eta Ibon Mendoza entrenatzailea izan ziren *Coimbran* ■ Historian lehenengo aldiz jokatu du Euskal Herriko Waterpoloko nesken selekzioak.



Yoli Pastor eta Onintza Esnal atzo Tilosetan.

EUSKAL Herriko Waterpoloko nesken selekzioa aurreko asteburuan izan zen lehenengo aldiz lehian. Selekzio bezala lehenengo ateraldi honetan, hernaniarrek bazuten errepresentazioa. Yoli Pastor eta Onintza Esnal jokalaria eta Ibon Mendoza entrenatzailea selekzioan baitziren.

**BIGARREN POSTUA**  
Coimbran (Portugal) jokaturako lehiaketan, bertako hiru talderen aurka neurtu ziren. Finalerdia 3-4 irabazi ondoren, finalerako sailkatu ziren. Finala 10-4 galdu zuten partidu gogor batean. Portugalarren liga euskaldunena baino indartsuagoa da, eta azkenean hori antzeman egin zen. Hala ere euskaldunen papera oso ona izan zen. □

### UDALEKUAK

## Udalekuetako umeak 'Kronikan' bisitan izan dira aste honetan

■ Astelehen, astearte eta asteazkenean 3 talde ezberdin izan ziren 'Kronikan', non eta nola egiten den ikusten ■ Gaur egun berezia dute.



Elizatzoko taldea.

UDALEKU Irekietako umeek euren ekintzen artean Kronikara bixitatu zituzten programatuak, eta 9 urteko 3 taldek astelehen, astearte eta asteazkenean bixitatu gaituzte. Kronikarako

bixitaz gain IMira (Udal Informatika Aretoa) ere joan dira ordenagailuetan ibiltzera..

**GAUR EGUN BEREZIA**  
Ostiralero bezala, gaur egun



Langileko taldea.

berezia dute Udalekuetan. Txikienean, 3-4 urtekoek, Koadrilla eguna dute. Gay Murren, San Joanetako koadrilla egunaren antzera, festa izango dute txaranga eta guzti. 5 urtekoen



Inmaculada eta Langileko taldeak.

taldeak Biterin izango dira. 10:30etan Ipuin kontalaria izango dute, eta 11:30etan herrialde ezberdinen jaialdia. Azkenik zaharrenek, 9 urtekoek, espresioaren jaija dute.

11:00etan Sandiusterrin, prestatu dituzten *koreografia*, *play back*, eta abarren erakustaldia egingo dute. Hamaiaka talde dira, eta bakoitzak *show* ezberdin bat prestatu du. □

### ■ ATLETISMOA

## Joxe Mari Garin hernaniarra estatuko txapeldun, 800 eta 1.500 m-tan, 76 urterekin

■ Ekainean Salamancan jokaturatu zen lehiaketa. Joxe Mari 800 eta 1.500 metrotako probetan hartu zuen parte eta biak irabazi zituen, beterano mailan. Joxe Mari 76 urte ditu, eta dominek garbi esaten dute ze mailako eta ze sasoiko atleta den.

## Bihar, larunbata, Behemendiko azoka Plaza Berrian

■ Baserriko produktuak daude azokan eta goiz eta eguerdi osoan egongo da. Behemendiko azoka hilean behin egiten da Hernanin.

### ■ HITZ BITAN

Joan zen astean pertsona batek betaurrekoak galdu zituen. Zihur ezin lezake esan zein inguruetan galdu zituen, baina galdutako egunean Santa Barbara inguruan buelta bat eman omen zuen. Betaurrekoek montura urdin iluna dute. Norbaitek aurkituko balitu: 943-551327 telefonora deitu dezala edo Urumea Burdindegitik pasa. □

### ■ HEMEROTEKA

#### TILOSETAKO FRONTOIAZ

“Final aurrekoetan Hernaniren aurka tokatu da aurten ere. Oraindik gogoan dugu iaz gertaturikoa, Soraluzen 2-1 eko eta 17 tantutako errenta polita lortu arren, nola Hernanin polikiroldegiko pilotalekua libre eduki arren plaza zahar bateko frontoi lotsagarri batean sartu gintuzten errentari eutsi ezinik 3-0 galdu genuelarik”. Soraluzeko ‘Pil pilean’ aldizkaria. □


### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Irigoien Elkano 2 ☎ 943 552087
- ▶ Gaez: Irigoien Elkano 2 ☎ 943 552087



## MUEBLES HERNANI

DENDA IXTERA GOAZ.

LIKIDAZIOAREN AZKEN EGUNAK  
Altzariak Beherapen haundiagoarekin.

Astelehenetik Ostiralera 16:30etatik 19:30etara  
eta Larunbatetan 10:30etatik 13:00etara Zabalik.

**HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI**



## TXASPE

ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365  
20120 HERNANI

### BAI EUSKARARI AKORDIOA HERRIETAN

Hernanirako martxan jarri nahi den Euskararen Normalkuntzarako Egitasmoaren barruan **2 langile behar dira.**

- ▶ LAN BALDINTZAK: Urte beterako (gutxienez)
- ▶ KONTUAN HARTUKO DIREN ERIZPIDEAK:
  - ⇒ Hernanin bizitzea
  - ⇒ Antzeko lanetan aritua izatea
  - ⇒ Bi hizkuntzetan ongi moldatzea
  - ⇒ Euskalgintza ezagutu edo bertan aritzea
- ▶ IZEN EMATEKO EPEA:

**Uztailaren 18a** baino lehen, Hernaniko Euskara zerbitzura jo. Hautaketak uztailaren 23an, elkarrizketa bidez egingo dira.

**Hernaniko Jarraipen Batzordea**